

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 4+1 / Ondoren 1

IKASGAIA

Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza


INGURUMEN-POLITIKAK

- Ura
- Hondakinak
- Biodibertsitatea
- Aldaketa klimatikoa



Ikas egoeraren markoa

TESTUINGURUA. Plaiaundiko Parke Ekologikoan hegaztiak izan ohi dira protagonista, baina ez dira bakarrak. Eszenaren atzean, makroornogabeek — intsektuak, karramarroak edo harrak bezalako biztanle txikiak — funtsezko eginkizuna dute ekosisteman. Haien presentzia funtsezkoa da uraren kalitatea neurtzeko eta oreka naturalari eusteko. Behaketaren bidez, izaki ñimiño hauek hezeguneko bizitzaren aliatu handiak nola diren ikusiko dugu.



Abiapuntua

Jakinda Plaiaundiko paduran makroornogabeek eginkizun garrantzitsu bat daukatela, eginkizun hori ezagutu, izaki hauek ikertu eta hegaztiekin duten lotura ikusiko dugu.

AZKEN EKOIZPENA EDO PRODUKTUA.

Makroornogabeek ekosisteman duten funtsezko zeregina ezagutu ondoren, intsektuen hotel bat eraikiko dute azken proiektu gisa. Babesleku hori ikastetxera eramango dute eta ingurumena zaintzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko konpromisoaren sinbolo bihurtuko da.

Ekimen honen bidez, biodibertsitatea babesteko neurri zehatzak praktikan jarriko dituzte, natura-ingurunearen errespetua eta kudeaketa arduratsua sustatuz.

HELBURU KOMPETENTZIALAK

- Plaiaundiko urmaletan dauden makroornogabeak behatzea eta identifikatzea, haien presentzia ekosistemaren kalitatearekin erlazionatzea eta oreka naturalean duten eginkizuna ulertzea.
- Aintziretako eta marearteko ekosistemen arteko desberdintasunak ezagutzeak Plaiaundiren aniztasuna eta balio naturala antzematea ahalbidetuko du.
- Ekosistemak zaintzeak duen garrantziari buruz hausnartzea, eta giza ekintzek bizitzarako funtsezkoak diren izaki txiki horiei nola eragin diezaieketen hausnartzea.
- Ingurunea esploratzen aktiboki parte hartzea, ingurumena zaintzeko autonomia eta jarrera arduratsuak garatuz.
- Makroornogabeei eragiten dieten ingurumen-arazoei aurre egiteko konpromisoak hartzea.

Curriculumaren zehaztapenak



NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP.	DES.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD EK KPSII HK KAKK	1, 2, 3 1, 2 1, 2, 3, 4, 6 1, 2, 3, 5 1, 2, 3 3, 4, 5 1, 4 4	3. Arazo-egoerak diziplinarteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat lankidetzan sortzeko.	3.3. Diseinu-problema bati soluzioa emango dion azken produktu bat taldean garatzea, zenbait prototipo edo soluzio digital probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz.	A. Kultura zientifikoa 1. Jarduera zientifikoaren hastapenak. - 1.3. Metodologia zientifikoa aplikatzeko irizpideak, jarraibideak eta faseak (behaketa, galderak eta iragarpenak egitea, esperimenduak planifikatzea eta egitea, informazioa eta datuak biltzea eta aztertzea, emaitzak jakinaraztea...), eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalen eta egoera errearen problemak behatzean, identifikatzean eta ebaztean. - 1.4. Ikerlanaren berezko estrategiak, honako hauekin lotutako ohiturak eta jarrerak garatzen laguntzen dutenak: jakin-mina, interesa, zorrozatasuna eta zehaztasuna, sormena, pentsamendu kritikoa, ahalegina eta autonomia lan pertsonalean, eta jarrera arduratsu eta aktiboa zereginetan, banakakoetan zein taldekoetan; genero-ikuspegia kontuan hartuta. 2. Bizitza gure planetan. - 2.2. Izaki bizidunen oinarrizko egiturak: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak; eta izaki bizidunaren funtzionamendurako elkarrekiko duten erlazioa.
HK KE STEM KD EK HK KPSII KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 1 1,4 4 1,2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa-metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak jakinaraziz. 5.2. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementuen arteko konexio errazak egitea, haien artean sortzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak baloratzea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatuko dituzten proposamen eta ekintzen bidez.	



NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP.	DES.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HK KE STEM KD EK HK KPSII KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	<p>6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz, eta problemak identifikatuz. Bizitza iraunkorraren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean jakinarazteko.</p> <p>6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoituak emanez.</p>	<p>B. Teknologia eta digitalizazioa</p> <p>2. Diseinu eta pentsamendu konputazionalako proiektuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2.2. Diseinu-proiektuen faseak: beharrak identifikatzea, diseinatzea, prototipoak egitea, probatzea, ebaluatzea eta komunikatzea. <p>C. Gizarteak eta lurraldeak</p> <p>2. Gizarteak denboran zehar</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2.6. Natura- eta kultura-ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa. <p>4. Kontzientzia ekosoziala</p> <ul style="list-style-type: none"> - 4.1. Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak. - 4.3. Garapen jasangarria. Giza jarduera espazioen gainean eta baliabideen ustiapena. Jarduera ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa: gizarte- eta eskualde-desberdintasuna munduan eta Espainian. Garapen Jasangarrirako Helburuak. - 4.5. Bizitza jasangarria: planetaren gehienezko mugak eta baliabideen agortzea. Aztarna eta zor ekologikoa.



Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

1. Giza ekomendekotasuna barneratzea. Bizitzaren egituraren parte garela ohartzea.

2. Biosfera gurtu. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Gizakiak kontrolatu eta ustiatzeko natura existitzen dela dioen ideia ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentristotik ekozentristora igarotzea.

5. Naturak ingurunera egokitzeko eta eraldatzeko aurkitu dituen irtenbideak gizakienak baino askoz ere handiagoak direla baloratzea. Giza ekintzak ekosistemen funtzionamenduan integratu behar ditugu. Biomimesia bizitza duinerako estrategia egoki gisa baloratzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

1.1. Izaki bizidun guztiak elkarrekin konektatuta daudela onartzea.

1.2. Izaki bizidunek lurzorua nola osatzen duten, ura nola garbitzen duten eta airea nola garbitzen duten azaltzea. Horrek gure biziraupenerako zer dakarren jakitea.

2.1..Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.

2.2. Biodibertsitatea babesteko ekintzak egitea.

2.3. Gizakiak natura kontrolatu dezakeela edo kontrolatu behar duela dioen ideia aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.

2.4. Bizitza osoaren babesari balio handia ematea, kulturalki gaizki ikusiak daudenak barne (ornogabeak, adibidez).

5.1. Sistema erresilienteago bati zer egin diezaiokeen azaltzeko adibideren bat jartzea (erresilientziaren kontzeptua ezagutu gabe).

5.2. Natura Lurra eboluzionatzeko eta eraldatzeko gai izan dela nabarmentzea, adibide zehatzen bat jarritz. Adibidez, landareen bidez lortzen dela oxigenoa eta honek beste izaki bizidunen hedapena ahalbidetzen duela.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

* Ekomendekotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren lehiaketarik gabe.

* Funtzio ekosistemiko nagusiak: ongarritzea, ura eta airea araztea, polinizazioa, erregulazio klimatikoa, etab.

* Naturarekiko lotura espirituala.

* Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.

* Natura zaintzearen garrantzia.

* Izaki bizidunen aniztasunaren eta ekosistemaren orekaren edertasuna (ornogabeak barne).

* Berotegi-efektua: landarearen bidez erregulatu eta bizitzarako duen garrantzia.

* Oxigenoa: bere egitura eta bizitzarentzat duen garrantzia.



IKASKUNTZA EKOSOZIALA

7. Klima-aldaketa zer den, haren kausak, ondorioak eta konponbideak ezagutzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

7.1. Klima-aldaketa zertan datzan azaltzea.

7.2. Klima-aldaketaren ondorio batzuk zerrendatzea.

7.3. Klima-aldaketa zer den, haren kausak, ondorioak eta konponbideak ezagutzea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Klima-aldaketaren arrazoiak: erregai fosilen erreketak. Berotegi-efektua handitzea berotegi-efektuko gasen isurtzeen ondorioz.
- * Klima-aldaketaren ondorioak: muturreko fenomeno meteorologikoak (lehorteak, uholdeak, bero-boladak, etab.), suteak, urtzaldia, itsas mailako igoera, basoen galera, etab.
- * Klima-aldaketaren aurkako neurriak maila indibidualean: motordun mugikortasuna murriztea, dieta begetarianoak eta gertukoak, kontsumoaren urritasuna, etab. Neurri eraginkorrak eta irismenaren balorazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.



Lehen Hezkuntza 3. zikloa

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 4+1 / Ondoren 1



Metodologia



ESTRATEGIA

EREDU PEDAGOGIKOA:

Arazoetan
oinarritutako
ikaskuntza

Gogoetan
oinarritutako
ikaskuntza



ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ezagutzaren
eraikuntza
kolektiboa

Ikaskuntza
aktiboa

Ekintzarako
ikaskuntza



TEKNIKAK

OHIKOAK:

Ikerkuntza
taldeak

Digitalak

Tailerrak

Azalpenak talde
handietan

EZOHIKOAK:

Museoa

Besteak
(Babestutako
naturgunea)